EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

INFORMAZIO OHARRA

# Eusko Ikaskuntzak aniztasuna eta bizikidetza sustatzeko plana landuko du instituzioei laguntza emanez

- *Gizarte-trantsiziorako prestatzeko beharra nabarmendu da datozen aldaketa azkarren aurrean, euskal kulturaren eta nortasunen aniztasuna zainduta*
- *Eusko Ikaskuntzaren `Elkartzen Gaituena' Kongresuak komunitate kontzientzia pizteko beharra azpimarratu du*

**Gasteiz, 2024ko urriak 3**. Euskal jendarte osoko dozenaka aditu eta ehunka herritar bildu da gaur, urriak 3, Eusko Ikaskuntzaren XIX. kongresuaren bigarren egunean, Gasteizko Europa Jauregian. Ekitaldiaren xedea izan da jendarteak dituen erronkak aztertzea eta horien inguruko proposamenak lantzea, zenbait proiekturen eta adituren bidez. Izan ere, Eusko Ikaskuntzak aniztasuna eta bizikidetza sustatzeko plana lantzeko asmoa du, instituzioei etorkizuneko erronkotan laguntzeko.

Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakariak azaldu duenez, "euskal jendarteak geroan jorratu beharreko zenbait erronka ditu, gaur egun jada sumatzen ari garenak eta, datozen aldaketa bizkorrekin, etorkizun hurbilean landu beharko ditugunak, zalantzarik gabe. Hain justu, hori da kongresu honen helburu garrantzitsu bat".

Hala, Patxi Juaristi kongresuko lehendakaria bide berberetik aritu da: "Jendarte-trantsizio hauetarako prestatu beharra dugu eta kongresu hau horretarako abiapuntu eta elkargune itzela da. Bere leloa 'Elkartzen Gaituena' da, eta xede oso argia du: hemen garen ehunka lagunek eta askotariko adituk erronken inguruan hausnartzea, euskal jendartean komunitate-kontzientzia piztu beharra baitugu. Etorkizunaren eta bere erronkei elkarrekin aurre egiteko".

Eusko Ikaskuntzaren XIX. kongresuaren bigarren eguna Lola S. Almendros Salamankako Unibertsitateko ikerlariarekin hasi da. Zehazki, 'Las sociedades actuales y sus redes: evolución, participación y convivencia' izenburu duen hitzaldi markoa. Bertan, Almendrosek aztertu du jendarte garaikideen bilakaera, horiek osatzen dituzten sareak eta nola eragiten duten komunitate gisa parte hartzeko, elkarrekin bizitzeko eta eboluzionatzeko dugun gaitasunean.

**Informazio gehiago / Más información**
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

Ildo horretatik abiatuta, hiru ardatz nagusi jorratu ditu: bilakaera soziokulturala, gure bizitza sozialeko hainbat esparrutan bizi dugun alienazioa eta, azkenik, egungo testuinguruan bizikidetzarako eta herritartasunerako erronkak. Izan ere, jendarte garaikideek aurre egin beharreko erronka ez da soilik teknologikoa edo politikoa, baizik eta sakonki gizatiarra.

"Elkarbizitzarako erronka bat da elkarrekin bizitzeko moduak aurkitzea azkar aldatzen den mundu batean. Horrek esan nahi du birpentsatu behar ditugula gure praktikak, balioak eta, batez ere, besteekin eta geure buruarekin harremanak izateko modua, gero eta informatizatuago dagoen mundu honetan", esplikatu du Almendrosek.

**Zenbait proiektu, hainbat erronka**

Ondoren, Eusko Ikaskuntzak azken hiru urteotan aipatu erronketariko batzuk landu ditu zenbait proiekturen bidez. Gaurko jardunaldian horietako lau proiekturen ondorioak eta proposamenak aurkeztu ditu. Urkizak aipatu duenez, "ondorioek azpimarratu dute jendarte-kohesioa eta komunitatearen parte-hartzea ezinbestekoak direla etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Euskal nortasuna, kultura, hezkuntza eta gizarte berrikuntza trantsizio ekologiko, digital eta sozialean garatu behar ditugu, duintasuna, inklusioa eta aniztasuna oinarri hartuta".

Ondoren, Juaristik honakoa gaineratu du: "Komunitatearen parte-hartzea eta lankidetza maila ezberdinetan bultzatu behar dira, gobernantza irekiak eta berrikuntza soziala sustatzen duten ekimenek etorkizun hobe bat eraikitzeko ahalmena dutela frogatzen baitute".

Hala, lehen proiektua nortasunaren ingurukoa izan da: 'Euskal nortasuna(k) XXI. mendera begira: 2050 helburu'. Proiektua azaltzeaz gain, aztertu dituzten atalak, diagnosia eta emaitzak plazaratu dituzte. Azkenik ondorio gisa, honakoa aipatu dute:

Euskal nortasuna aniztasuna aberastasun gisa ulertu behar da, lurralde desberdinen arteko batasuna eta kohesioa bultzatuta. "Inklusioa eta parte-hartzea funtsezkoak dira etorkinak eta jendartearen periferian daudenak integratzeko. Komunitate osoaren inplikazioa beharrezkoa da, euskal nortasun sendoa eta kohesionatua lortzeko", azaldu dute lantaldeko koordinatzaileak.

Beranduxeago, eguneko bigarren proiektua aurkeztu dute: 'Euskal Hezkuntza Sistema. Etorkizuna elkarrekin lantzen'. Bertan, hezkuntza

eremu bateratu bat sortzearen garrantzia azpimarratu da, non euskara eta euskal kultura elementu komunak izango diren. "Elkar-lanerako sareak, mugikortasuna eta inklusioa sustatu behar dira lurraldeen arteko kohesioa bultzatzeko", adierazi du Nora Salbotx proiektuko kideak.

**Hausnarketa sortzailea, aitzindaria eta berritzailea**

Ondoren, Kukai Dantza Taldeak bultzatutako hausnarketa-sortzailearen txanda izan da. Jarduera aitzindaria eta berritzaileak Euskal Herri osoko artista ugari eta oso anitzak batu ditu. Gainera, ekintza deigarri honetan kongresura bertaratutakoekin batera jarduten aritu dira.

"Ikuskizun tradizional batetik harago joan nahi genuen, hain zuzen, kongresuaren parte zen eta bere xedeekin bat zetorren jarduera bat" azaldu du Jon Mayak. Horregatik, Kukai Dantza Taldeak Euskal Herriko musikan den aniztasuna jaso du eta parte hartze zuzeneko ekintza artistiko hau egin. Euren xedea argia izan da: "ideiak transmititzea eta gogoetarako bide izatea", gaineratu du Juaristik.

Eguerdiko etenaldiaren ondoren, hirugarren proiektua azaldu dute: 'GizarteLAB: Gizarte berrikuntzarako esperimentazio laborategia'. Atal honi hasiera emateko testuingurua Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua Nerea Melgosak azaldu du.

Jendarte berrikuntza eta gobernantza irekia eredu eraginkorrak direla erakutsi da, gainera, trantsizio digitalen, ekologikoen eta demografikoen aurrean, herritarren parte hartzearen garrantzia agerian geratu da. "Esperimentazioa eta herritar-politikarien elkarlana beharrezkoak dira eredu berriak sortzeko eta komunitateak indartzeko", adierazi du Auxkin Galarraga proiektuko zuzendari zientifikoak.

Azkenik, laugarren proiektua aurkeztu dute: 'Kultur eskubideak: Parte-hartzea eta gobernantzarako politikak'. Aurrekoetan lez, proiektuaren marko teoriko-metodologikoa azaldu dute. Baita diagnosia eta proposamenak ere.

Ondorioei dagokienez, Oskia Ugartek azpimarratu du kulturaren eremuan, parte-hartzea eta gobernantza inklusiboa "funtsezkoak" direla: "Euskal kulturaren baldintzak hobetu behar dira, eta kultur ekosistema parte-hartzaile eta anitzak sortzea da helburua, non komunitateak, sortzaileak eta erakundeak lankidetzan arituko diren".

Horrenbestez, kongresua biribiltzeko asmoz, amaieran ardatzen ondorioak eta etorkizuneko ildoak jorratu dituzte, hots, lau proiektu hauek erakutsi dute euskal jendartearen etorkizuna eraikitzeko "inklusibitatea, parte-hartzea, aniztasuna eta lankidetza giltzarriak"

direla. Ildo horri helduta, Eusko Ikaskuntzaren nahia aniztasuna eta bizikidetza sustatzeko plana lantzea izango da, betiko lez, instituzioei laguntza emanez artekaritza zuzena eginda.

**JARDUNALDIKO ESALDI-GAKOAK**

Ana Urkiza: "**Jendarte-kohesioa eta komunitatearen parte-hartzea ezinbestekoak dira etorkizuneko erronkei aurre egiteko**".

Patxi Juaristi: "**Gobernantza irekiak eta berrikuntza soziala sustatzen duten ekimenek etorkizun hobe bat eraikitzeko ahalmena dutela frogatzen dute**".

Lola S. Almendros: "**Birpentsatu behar ditugu gure praktikak, balioak eta, batez ere, besteekin eta geure buruarekin harremanak izateko modua**".

Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuak ondoko erakundeen laguntza izan du: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; Nafarroako Gobernua; Euskal Hirigune Elkargoa; Eusko Jaurlaritza; Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministeritza; Laboral Kutxa; Vital Fundazioa; Baiona, Bilbo, Donostia, Iruñea eta Gasteizko udalak; Deustuko unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, UNED, Nafarroako Unibertsitate publikoa, Nafarroako Unibertsitatea eta Paue eta Aturri inguruko herrialdeetako Unibertsitatea; Berria, EITB, Correo, Diario Vasco, Gara, Noticias Taldea, Tokikom, Goienako hedabideak; eta Altube elkartea.

**Informazio gehiago / Más información**
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

NOTA INFORMATIVA

# Eusko Ikaskuntza elaborará un plan de apoyo a las instituciones en el fomento de la diversidad y la convivencia

- *Destaca la necesidad de prepararse para la transición social ante los rápidos cambios que se avecinan, preservando la diversidad cultural e identitaria vasca*
- *El Congreso «Elkartzen Gaituena» de Eusko Ikaskuntza ha subrayado la necesidad de despertar la conciencia comunitaria*

**Vitoria-Gasteiz, 3 de octubre de 2024**. Decenas de personas expertas y cientos de ciudadanas y ciudadanos procedentes de los diversos ámbitos de la sociedad vasca se han dado cita hoy, 3 de octubre, en la segunda jornada del XIX Congreso de Eusko Ikaskuntza, que se celebra en el Palacio Europa de Vitoria-Gasteiz. El objetivo del evento ha sido analizar los retos a los que se enfrenta la sociedad y elaborar propuestas en torno a ellos, a través de diferentes proyectos y personas expertas. De hecho, Eusko Ikaskuntza tiene la intención de elaborar un plan para fomentar la diversidad y la convivencia, a fin de apoyar a las instituciones ante estos desafíos futuros.

La presidenta de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Ana Urkiza, ha explicado que «la sociedad vasca tiene una serie de retos que abordar de cara a futuro, retos que ya estamos percibiendo y que, con los cambios tan acelerados que se avecinan, sin duda tendremos que abordar próximamente. Ese es precisamente uno de los objetivos más importantes del congreso».

El presidente del congreso, Patxi Juaristi, ha coincidido en que «tenemos que prepararnos para estas transiciones sociales, y este congreso es un gran punto de partida y de encuentro en ese sentido. El lema del Congreso, «Elkartzen Gaituena -Lo que nos une – Ce qui nous rassemble», tiene un claro objetivo: que los cientos de personas y expertas aquí presentes reflexionemos sobre estos desafíos, porque tenemos que despertar la conciencia comunitaria en la sociedad vasca, para así afrontar en común tanto el futuro como sus retos».

La segunda jornada del XIX Congreso de Eusko Ikaskuntza ha comenzado con la presencia de Lola S. Almendros, investigadora de la Universidad de Salamanca, con una conferencia marco titulada «Las sociedades actuales

**Informazio gehiago / Más información**
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

y sus redes: evolución, participación y convivencia». En ella, Almendros ha analizado la evolución de las sociedades contemporáneas, las redes que las conforman y cómo influyen en nuestra capacidad de participar, convivir y evolucionar como comunidad.

En este sentido, ha abordado tres grandes ejes: la evolución sociocultural, la alienación que vivimos en diferentes ámbitos de nuestra vida social y, por último, los retos para la convivencia y la ciudadanía en el contexto actual. Y es que el desafío al que se enfrentan las sociedades contemporáneas no es solo tecnológico o político, sino también profundamente humano.

«En un mundo constantemente cambiante, encontrar formas de convivir es todo un desafío para la convivencia. Esto significa que tenemos que repensar nuestras prácticas, nuestros valores y, sobre todo, la forma de relacionarnos con las demás personas y con nosotras mismas, en un mundo cada vez más informatizado», ha explicado Almendros.

**Tantos proyectos como retos**

Eusko Ikaskuntza ha trabajado durante los últimos tres años en algunos de los temas mencionados, a través de diferentes proyectos. Durante la jornada de hoy se han presentado las conclusiones y las propuestas de cuatro de esos proyectos. Urkiza ha señalado que «las conclusiones ponen de manifiesto que la cohesión social y la participación de la comunidad son imprescindibles para afrontar los retos del futuro. Tenemos que desarrollar la identidad, la cultura, la educación y la innovación social vascos en un marco de transición ecológica, digital y social, y sobre la base de la dignidad, la inclusión y la diversidad».

A continuación, Juaristi ha añadido que «hay que impulsar la participación y la cooperación de la comunidad a diferentes niveles, porque la gobernanza abierta y las iniciativas que promueven la innovación social demuestran su potencial para construir un mejor futuro».

Así, el primer proyecto, «La(s) identidad(es) vasca(s) en el siglo XXI: objetivo 2050», ha girado precisamente en torno a la identidad. Además de explicar el mismo, las personas coordinadoras del grupo de trabajo han dado a conocer los puntos analizados, el diagnóstico y los resultados, y, a modo de conclusión, han incidido en que se debe entender la identidad vasca como diversa y enriquecedora, impulsando la unión y la cohesión entre los diferentes territorios. «La inclusión y la participación

son fundamentales para integrar a la población inmigrante y a las personas que están en la periferia de la sociedad. Para conseguir una identidad vasca fuerte y cohesionada es necesaria la implicación de toda la comunidad», han indicado.

Posteriormente, se ha presentado el segundo proyecto del día: «El Sistema Educativo Vasco. Trabajando el futuro en común». En este segundo proyecto se ha destacado la importancia de crear un espacio educativo unificado en el que el euskera y la cultura vasca sean elementos comunes. «Hay que fomentar las redes de trabajo colaborativo, la movilidad y la inclusión para impulsar la cohesión interterritorial», ha afirmado Nora Salbotx, miembro del proyecto.

**Una reflexión creativa, pionera e innovadora**

A continuación, ha llegado el turno de la reflexión creativa impulsada por Kukai Dantza Taldea. Esta actividad pionera e innovadora ha unido a un sinfín de artistas de gran diversidad de toda Euskal Herria. Además, en esta llamativa actividad han trabajado junto con las personas asistentes al congreso.

«Queríamos ir más allá de un espectáculo tradicional, una actividad que formara parte del congreso y que encajara en sus objetivos», ha explicado Jon Maya. En este sentido, Kukai Dantza Taldea ha reflejado la variedad musical de Euskal Herria y ha llevado a cabo esta actividad artística de participación directa, con un claro objetivo: «transmitir ideas y servir de cauce para la reflexión», según ha añadido Juaristi.

Tras la pausa del mediodía, se ha procedido a la exposición del tercer proyecto: «GizarteLAB: Laboratorio de Experimentación para la Innovación Social». La consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, Nerea Melgosa, ha explicado el contexto que da inicio a este apartado.

En este eje, se ha demostrado que la innovación social y la gobernanza abierta son modelos eficaces, además de evidenciar la importancia de la participación ciudadana frente a las transiciones digitales, ecológicas y demográficas. «La experimentación y la colaboración ciudadana y política son necesarias para crear nuevos modelos y fortalecer las comunidades», ha señalado Auxkin Galarraga, director científico del proyecto.

Por último, se ha presentado el cuarto proyecto: «Derechos culturales: participación y políticas de gobernanza». Como en los proyectos anteriores, se ha expuesto el marco teórico-metodológico del proyecto, así como el diagnóstico y las propuestas correspondientes.

**Informazio gehiago / Más información**
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

En cuanto a las conclusiones, la portavoz del proyecto Oskia Ugarte ha destacado que, en el ámbito de la cultura, son «fundamentales» la participación y la gobernanza inclusiva: «Hay que mejorar las condiciones de la cultura vasca, al objeto de crear ecosistemas culturales participativos y diversos, donde las comunidades, las personas creadoras e instituciones colaboren», ha explicado.

Llegados a este punto y a fin de completar la jornada congresual, se han abordado las conclusiones de los grandes ejes y las líneas de futuro, recalcando que estos cuatro proyectos han demostrado que «la inclusividad, la participación, la diversidad y la cooperación son claves» para construir el futuro de la sociedad vasca. En este sentido, Eusko Ikaskuntza pretende elaborar un plan para fomentar la diversidad y la convivencia, apoyando, como de costumbre, a las instituciones mediante la intermediación directa.

**FRASES CLAVE DE LA JORNADA**

Ana Urkiza: **«La cohesión social y la participación de la comunidad son imprescindibles para afrontar los retos del futuro».**

Patxi Juaristi: **«La gobernanza abierta y las iniciativas que promueven la innovación social demuestran su potencial para construir un mejor futuro».**

Lola S. Almendros: **«Tenemos que repensar nuestras prácticas, nuestros valores y, sobre todo, la forma de relacionarnos con las demás personas y con nosotras mismas».**

El XIX Congreso de la Sociedad de Estudios Vascos ha contado con la colaboración de las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa; el Gobierno de Navarra; la Comunidad de Aglomeración del País Vasco; el Gobierno Vasco; el Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades; Laboral Kutxa; la Fundación Vital; los ayuntamientos de Baiona, Bilbao, San Sebastián, Pamplona y Vitoria; la Universidad de Deusto, Universidad del País Vasco, Mondragon Unibertsitatea, UNED, Universidad Pública de Navarra, Universidad de Navarra y Université de Pau et des Pays de l'Adour; Berria, EITB, Correo, Diario Vasco, Gara, Grupo Noticias, Tokikom, Medios de Goiena; y la asociación Altube.

**Informazio gehiago / Más información**
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

**Informazio gehiago / Más información**
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)